

ESKOLA KIROLA 20/21 - FAQ

- **Zer jarduera eten dira?**

Edozein erakundek egiten dituen kirol-jarduera guztiak (kirol-klubek, gurasoen elkarteek, ikastetxeek, kirol-zerbitzuak ematen dituzten enpresek, udalak, ...). Hau da, lehiaketa-jarduerak (partida edo lehiaketa-jardunaldi ofizialak eta/edo ez ofizialak edo «**lagunartekoak**»), irakaskuntza-jarduerak (**entrenamenduak**, hastapen- eta teknifikazio-ikastaroak), eta jolas-jarduerak (mendi-irteerak...).

- **Zein adinetako pertsoneri eragiten die eteteak?**

Benjaminurrekoen, benjaminen, kimuen eta haurren kategorietako jarduerak eten dira, hau da, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko 2. mailara artekoak.

Gainera, **Eskola Kirola programan** sartuta dauden **kadeteen** kategoriako jarduerak ere eten dira.

- **Etete horretan sartu dira ikastetxeek eta udalerriek egiten dituzten kirol-jarduerak ere?**

Bai.

- **Non aurki ditzaket COVID-19AREN ARLOKO JARDUKETA-ARAU OROKORRAK?**

Eskola-kirolaren web-orri nagusian aurki ditzakezu www.bizkaia.eus/eskolakirola («KORONABIRUSARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA»).

- **Baimena emango da eskola-umeak federatzeko, eskola-kiroleko jarduerak etenda dauden bitartean?**

Ez.

- **Non eskuratu dezaket informazio gehiago eta izena eman «COVID-19aren arloko prebentzioa eta segurtasuna eskola-kirolean» ikastaroan?**

<https://kiroleskola.smartmobile.fit/groups/inscription/23/Prebentzio-y-Seguridad-ante-COVID-19-en-Deporte-Escolar>